



EUSKO IKASKUNTZAREN

BERDINTASUNAREN ALDEKO KONPROMISOA

Berdintasunaren bidea lantzen ibiltzeak ahultasunak daudela onartzea suposatzen du, egun behintzat. Hobetzeko badagoela aitortzea, alegia. Besteak beste, bazterkeriak gainditu, aukerak parekatu eta pertsonon arteko harremanak estutzeko bidea irekitzea dakar. Agerikoa da, garapen jasangarri baten mesedetan, lankidetzaz eta berdintasuna funtsezkoak direla eta etorkizuna eraikitzen gabiltzan eragile orok argi izan behar dugula gure papera bestelakoa dela egite horretan.

Horiek horrela, Eusko Ikaskuntzak ondokoa adierazi nahi du:

2018an Eusko Ikaskuntzak 100 urte bete zituen. Orduan, mende oso batean izandako eskarmentu luzeko historia azaleratu zen baina, batez ere, hausnarketa prozesu parte hartzaile eta sakon baten ostean, etorkizunera begira gure erakundearen papera aldarrikatu genuen: herri garapenerako ikuspegi orokorra eta arnas luzekoa lantzea, politika publikoen eta gizarte beharren mesedetan. Finean, Euskal Herri askotariko, kohesionatu eta solidarioa eraikitzea. Baina betebeharrak horri behar bezala erantzuteko erroak irmo sendotzea funtsezkoa zen. Hitzetatik harago, ekintzetan gure konpromisoak zehaztea. Horrela sortu zen, besteak beste, Eusko Ikaskuntzako Emakume eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana, 2019an abiatu eta lau urteko epealdirako indarrean dagoena.

Horri esker, Eusko Ikaskuntzaren baitan berdintasunean oinarritutako barne antolaketa sustatu da, berdintasunaren kultura eta balioen lanketa garatzen gabiltza eta genero ikuspegia proiektuetan sistematikoki lantzen ari da. Heldutako konpromiso horren erakusle argi bat da 2019az geroztik antolatzen dugun Bilboko Sinposio hau, berdintasunari lotutako gaietan sakondu eta horren hedapena sustatzeko: 2019an interseksionalitatea jorratu genuen, 2020an ekonomia feminista eta 2021 honetan zaintzaren berrantolaketa sozialaz aritu(ko) gara.

Argi dago, beraz, bidea zabaldu besterik ez dela egin eta Eusko Ikaskuntzaren egitekoa berdintasunaren alorrean nabarmena izan behar dela. Hori dela eta, Eusko Ikaskuntzak berdintasunaren alde lanean jarraitzeko konpromisoa azpimarratu nahi du, bere jardunean biltzen diren oinarritzko lau printzipioak betetzeko erantzukizunari helduta: feminismoaren paradigma aplikatu, genero ikuspegia txertatu, interseksionalitatea aintzat hartu, eta emakumeen ahduntzea sustatu.

Jarrai dezagun, hortaz, elkarrekin eta berdintasunetik, nahi dugun etorkizuneko Euskal Herria egiten.

Bilbo, 2021eko irailaren 30a.